

Gaztetxea, 'sutan'

Su Ta Gar talde
beteranoak zuzenekoak
eskainiko du bihar
Gaztetxean ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2006-03-31 ▶ IV. urtea ▶ 851. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Zizurkilgo 3.000 argazki eta 550 toponimo bildu dituzte CD batean

ONDAREA ▶ Etxez etxe banatuko du Udalak
'Zizurkilgo ondarea eta baserriak' CD interaktiboa

HELBURUA ▶ Joxin Azkue egilearen esanetan,
«herriko memoria bisuala» jaso nahi du lanak ▶ 4



Zizurkilgo kaskoak gaur egun duen itxura. J. AZKUE

TOLOSA ▶

Kolonbiako ikastetxe batekin senidetu da Samaniego

Ingurumen batzordearen ekimena da;
konpromisoak hartu dituzte ikasleek ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

AHTren aurkakoak absolbitu egin ditu epaileak

Kanpaina berria jarri
du martxan AHT
Gelditu! Elkarlanak ▶ 5

TOLOSALDEA-
LEITZALDEA ▶

Dispertsioa desagertzeko eskatuko dute beste behin

Ibarran ekitaldiak
egingo dituzte herriko
presoen urtemugan ▶ 7

ZIZURKIL ▶

IV. Antzerki Astea, adin guztietako ikuslegoan pentsatuta

Hilaren 3tik 8ra, egunero-egunero
eskainiko dute antzezlan bat ▶ 3



Iparalde bidea 2/g.
20014 Astigarraga.
Futbol zelaiaurrean.

943 556 109

Hobetu zure giroa, egokitu zure bizitza

Apirilak 1ean irekitzen dugu



HAIZE EGOKITUA

Gernikako Arbola enparantza, 2. behea • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel. 943 698 944 • e-mail: iturklima@gmail.com

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Zergatik larunbatean Bilbora?

Jadanik han eta hemen mezu ugari ateratzen da larunbatean Bilbora joateko arrazoiak emanez. Guk ere bi hitzetan, konponbidearen alde dagoen herritar orori, ahal badu, larunbatean Bilbora joateko eskatu nahi diogu. Zergatik?

Konponbidearen garaia delako, herritar bakoitzak bere ekarpena egiteko garaia delako. Aukera politiko berri hau alferrik galtzen uzten badugu arduragabekeri galanta izango delako.

ETAren su-etena lagungarri

bada ere, hemen ez da bakerik izango herritarren hitza eta erabakia bahituta dauden bitartean.

Bide hau egiteko alderdi politiko ugari eta ia sindikatu guztiek bat egin dute larunbatean *Konponbide garaia da. Erabakia. Adostasuna* lelopean Bilboko kaleak euskal herritarrez betetzeko.

Bada deialdiarekin bat ez datorren euskal alderdirik ere. Hauetaz zaietan lan erraza geratu euskal gizarteari konponbidearen aldeko mobilizazio batera ez joateko bere arrazoiak (eta ez aitzakiak) emateko.

Guk, ez etortzeko duten piztuko arrazoiak zein den pentsatzen dugu, baina hori beste

idatzi batetarako utziko dugu. Oraingoan mezu argi eta garbia dugu: bake prozesua martxan jar dadin herritarren bultzada behar du. Denok Bilbora. Autobusak antolatu dira eta ohiko lekuetan izango da izena emateko aukera.

ANAJE URKOLA ▶
TOLOSAKO BATASUNA

Tolosako udaltzaingoa langileen aurka

Jakina da aspalditik Tolosan aparkatzea arazo handi bat dela, baina Udaltzaingoa deskargatzen jarri beharrean isunen

talonarioa azkarregi erabiltzen du lanean aritzen garenen aurka.

Salaketa hau dator ia hilabete eskas batean bigarren isun bat jaso dudalako. Lehenengo Triangulo Plazan, zamalantzetako egokitua dagoen tokian aparkaturik nuelako furgoneta kargatzen ari nintzen bitartean, eta M-05 agentearen iritzi denboraz pasatu nintzelako (portzierto, noizko udaltzaingoa euskalduna?); eta bigarrena Gorosabel kalean ikastetxe zahararen pareko (gero udaletxe bezala egon zena) autobus geltokian, bost minutu baino gutxiago deskargatzen egonda, honen parean zamalantzetarako egokitua da-

goen tokia guztiz beteta zegoelarik.

Esan behar da bost minutu horietan ez zela inongo autobusarik etorri eta ez nuela inongo eragozpenik sortu; eta, gainera, nongoen tokian bi autobus gutxienez sartzen zirela. Isunak jartzeko bai azkarrak gure M-05 eta M-27 agenteak horrelakoetan langileen aurka joatea horren azkar, eta San Frantzisko ibiltokian bigarren lerroan eguneroko-eguneroko aparkaturik dauden ibilgailuei edota Foru-Nafarroa etorbidean hiru karriletatik askotan bi okupatuta egotea aparkaturiko kotxei ez ikusiarena egiten.

MIKEL ZABALA ▶ TOLOSA

GIZARTEA ▶

Kolonbia, hurreago

Samaniego eta Guillermo Leon Valencia ikastetxeen arteko anaieratze ekitaldia burutu zuten atzo; Kolonbiako Vital Fundazioak bere proiektua aurkeztu zuen



Kolonbiako eta Samaniego ikastetxeen ordezkariak, atzo arratsaldean, senidetze ekitaldian. N. LATABURU

ROSALIA ESPINOSA DE REYES ▶ VITAL FUNDAZIOA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Gure fundazioaren helburua ingurunearen hobekuntza lortzea da»

«Pozik» azaldu zen atzo Rosalia Espinosa bere hitzaldiaren aurretik, «hemendik bideratu dituzten laguntza guztiengatik». Kolonbian bizi da, non proiektu bat martxan jarri duen bere elkartearekin.

Zertan datza proiektua?

Proiektua baino, prozesua da. Guabas errekararen inguruetan, Ginebra herrian (Kolonbia) 50 familientzako etxebizitza jasagarriak eraikitzea da. Gure helburua ingurunearen hobe-

kuntza lortzea da, mundu hobeago batean bizi ahal izateko. Uraren tratamendua eta garbiketa, zaborren tratamendu jasagarria, eskola eta haurtzaindegien eraiketa... guztia zaindu da.

Zer lortuko duzue hari esker?

Komunitate antolakuntzaren indartzea; ekoizpen jasagarriaren sistemaren ezarpena; tratamendu eta deskontaminazio sistema jasagarrien inplementazioa.

Nola burutzen duzue lana?

Guk laguntza tekniko eta soziala eskaintzen diegu, baina erabakia haiena da. Etxebizitzaren diseinua komunitate osoaren partaidetzarekin egin da, beti ere ingurunearen aldeko apustua eginez.

Zaila izan al da?

Kontzeptualismo gabe egiten dugu lan, eguneroko bizitzan aplikatzen ditugu aldaketak. Hango bizimodua hobetu nahi dugu. 1996an sortu genuen

NOELIA LATABURU

Egun berezia bizi izan zuten atzokoan Samaniego ikastetxeetako. Gaurtik aurrera, izan ere, Guillermo Leon Valencia Kolonbiako ikastetxearekin senidetuta daude tolosarrak. Tolosaldeko Lanbide Heziketako eskolako areto nagusiak hartu zuen, hain zuzen, ekitaldi «berezi» hau, non bi ikastetxeetako ordezkariak bildu baitziren. Ondoren, Kolonbiako produktuekin meriendatxo eskaini zuten bertaratuentzat.

Bi ikastetxeek hainbat konpromiso hartu dituzte. Esaterako, eskola materialak, kultura

esperientziak eta ingurumenekoak trukatzeko; aldiro, gutunak idaztea ikasleentzako irakasleentzako artean eta, bi aldeak aberastu helburuz, ekintzetan elkarlanean aritzea. Samaniegok, gainera, diru laguntzak eta material didaktikoak bideratuko ditu, jarduerak antolatuz.

Halaber, Vidal Fundazioa elkartearen lehendakari Rosalia Espinosa De Reyesen bisita jaso zuten ikastetxeen. *Mendia bizi dadin* izeneko proiektuaren aurkezpena egiteko baliatu zuten bere agerraldia kolonbiarrak.

Samaniegoko Ingurumen batzordeko ekimena izan da anaieratzea. «Hain kultura ezberdinetako komunitateak izanda ere, ingurumenaren aldeko apustu garbia egitea erabaki dugu. Hori dela eta, oso interesgarria iruditu zaigu hango eskolarekin anaieratze prozesuari hasiera ematea, elkar laguntzeko asmoz», adierazi zuen Ingurumen batzordeak.

fundazioa, eta ordutik etengabeko lana da.

Zein helburu ditu elkarteak?

Lau ardatz ditugu: elikagai subiranotasuna, antolakuntza, elkartasun ekonomia eta etxebizitza duina. Halaber, zeharka, ez garrantzi gutxiago duelako, uraren tratamenduari eta emakumearen gainean egiten dugu lan.

Emakumea aipatu duzu. Nolakoa da bere egoera?

Txarra, gu hobetzen saiatzen garen arren. Ez dugu generoen gerra sortu nahi baina haien arteko aukerak bilatzen ditugu. Gizonezkoek onar dezatela gai dela lursailak eramateko eta erabakietan parte hartzeko. ◀



NOELIA LATABURU

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Kalitatezko sei antzezlan ikusgai, aste bakarrean

Zizurkilgo IV. Antzerki Astea egingo dute hilaren 3tik 8ra, oraingoan ere, adin guztietako ikusle goan pentsatuta



Jaxone Agirrezabala Kultur zinegotzia eta Marian Lazkano alkatea, atzo, aurkezpenean. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Abian da Zizurkilgo IV. Antzerki Astea. Aurtengoa, hurrengo astean agingo da, astelehentik larunbatera eta atzo aurkeztu zuten Atxulondo Kultur Etxean. Apirileko kultur ekintzen artean gauzatuko da, Udalaren eta Kutxako Gizarte Ekintzaren laguntzaz.

Marian Lazkano Zizurkilgo alkatearen esanetan, «Zizurkilgoen tradizio handia du antzerkiak». Ikastoletan nahiz eskolez kanpoko jardueretan leku handia dute ikastaro hauek. Hori dela eta, eta aurreko urte-etako arrakastaren ondoren, laugarren aste bat antolatzea erabaki dute. Zizurkilgo Denbora antzezlan taldeak orain dela lau urte dinamika berri bat sortzea erabaki zuen, eta hemendik jai zen Antzerki Astea. Ekitaldiak adin guztietako herritarrei zuzenduta daude. Horrela, «adin bakoitzari zuzendutako eskaintza ezberdina» izango da.

Antzerki aste hau gauzatuko 6.000 euroko aurrekontua izan dute antolatzaileek. Ekitaldi guztiak «dohainik eta edonorentzat» izango dira. Kutxa Kultur Ekintzak bi antzerki



Eriz Magoa, arbiboko irudian; apirilaren 6an ariko da. NOELIA LATABURU

ekartzten lagundu du: txikitxoenei zuzenduta dagoen *Ingurumenua*, eta gazteentzako den *Eriz Magoa*.

Emanaldi guztiak euskaraz izango dira, bat izan ezik: *Extras 'Stones in his pockets'*. Antzezlan hau hilaren 4ean eskainiko dute Atxulondon. Saioak ikusmin handia sortu du, mundu mailan sari asko irabazi baititu. Ea nolako harrera jasotzen duen Zizurkilgoan.

Jardunaldietako hirugarren saioa, hau da, hilaren 5ean izango dena, Pedro Mari Otaño ikastetxeok eskainiko dute. Urtero bezala, bertako hurrek prestatu dute ekitaldia; hala, ezusteko modura, emanaldirarte ez da jakingo zer egingo duten gaztetxoek.

Antzezlanetako bat Villabonako herriarekin elkarlanean antolatuko dute: Eriz Magoarena. Ekitaldi hau Villabonako Gurea

EGITARAUA ▶
APIRILAK 3

'Ingurumenua'. 4-11 urte bitarteko haurrentzat zuzendua. 15:30ean izango da, Atxulondo kultur etxean.

APIRILAK 4

'Extras Stones in his pockets'. Maskarada taldearen eskutik. 20:00etan izango da, Atxulondo kultur etxean. Saio hau gaztelaniaz eskainiko da.

APIRILAK 5

Pedro Mari Otaño Ikastetxeok haurren emanaldia. 15:30ean, Atxulondo kultur etxean.

APIRILAK 6

Eriz Magoa. Gazteentzat zuzenduta. 16:00etan, Villabonako Gurea antzokian.

APIRILAK 7

'Ahulkiak'. Atxulondo kultur etxean, 20:00etan.

APIRILAK 8

'Aterpea'. Trapu Zaharrak-en kale antzerkia. 22:30ean, Zizurkil Goiko plazan.

antzokian egingo da. Bi herrien arteko lankidetzaren honekin lotu nahi dutena «gazteak antzerki mundura gehiago hurbiltzea» da.

Ahulkiak izeneko saioa, bestalde, Atxulondo kultur etxean izango dena, Arkaitz Canok idatzitako lan batean oinarritzen da. Asteari amaiera Aterpea antzezlanarekin emango diote. Saio hau Zizurkil Goiko plazan egingo da. Trapu Zaharrak taldeak eskainiko du, eta kale antzerkia izango da. Hori dela eta, umorea eta barre algarak ez dira faltako.

Antolatzaileek jendea animatu nahi dute emanaldietara joateko, «eta ekintza interesgarri hauetan parte hartzeko». «Arraroa da horrelako herri txiki batean egun gutxitan hainbeste antzerki saio antolatzea, eta aukera hori aprobetxatu beharra dago».

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Hainbat atal. Gure web orrian gure herrietako berri jakin dezakegu noiz-nahi. Bai egunean gertatutakoari buruz, bai agendako iragarpenei buruz, herrietako irudiak, eztabaidak, inkestak... Hainbat atal ditugu eskuragarri. Erabili eta ikasi!

TOLOSA ▶
Mobilizazio eguna Ismaelen epaiketarik

Ismael gazte tolosarra apirilaren 4ean epaitua izango da beste hiru gazterekin batera. Egiako epaitegian, duela urte batzuk Zaldibian jazotako gertaera batzuen ondorioz. Hori dela eta, Segi-k, beste hainbat gazteren babesarekin, mobilizazio egunerako deitu du egun horretarako. Honekin, elkartasuna erakutsi nahi diote Ismari. Paroak egingo dituzte ikastetxeetan, 08:00etatik, 12:30era. Eta kontzentrazioa 09:30ean Egiako epaitegian. Hara joateko interesa dutenek tren geltokira edo apeaderora agertu behar dute 08:20ko tren hartzeko. Honez gain, kontzentrazioa egingo dute Tranguloan. Segi-ren ustetan, «epaiketa hau Espainiak daraman politikaren adierazgarri da».

TOLOSA ▶
Ikastaro berriak Usabalgo kiroldegian

Usabal kiroldegian ikastaro berriak hastear daude. Hauen artean helduentzako nahiz haurtoentzako igeriketa ikastaroak izango dira. Baita Cycling, Pilates, Karate, Kempo, Acuyagym eta Tai-chi-ko kurtsoak ere. Ikastaroak apirilaren 3an hasi eta ekainaren 30ean amaituko dira. Prezioa 54,73 eurokoa izango da bazkideentzat. Informazio gehiago jaso nahi duenak 943 53 64 00 telefono zenbakira hots egin dezake, edo Usabal kiroldegitik bertatik pasatu.

iragarki laburrak ▶
GALDUTAKOAK

Txakurrak. Bi txakur galdu dira Ibarren: artzai zakurra eta setterra. Deitu 665 72 80 79ra.

SALGAI

Etxebizitza. Etxebizitza bifamiliar berria. 200m²ko txebizitza eta 160 m²ko lorategia. Deitu 652 77 79 59 telefono zenbakira.

LANA

Ileapaintzailea. Ileapaindegirako langilea behar dugu, jornada erdirako. Bidali curriculum-a eta argazkia Tolosako lurre auzoa 20, 3.B helbidera.

VILLABONA ▶

Kontzertu lirikoa, gaur gauetan, Gurea aretoan

Nerea Barriola abeslariaren eta Ana Iparragirre piano-jolearen eskutik

N. URBIZU

Villabonako Gurea zineman kontzertu liriko bat entzuteko aukera egongo da gaur gauetan, 22:30ean, hain zuzen. Bertan Nerea Barriola zizurkildarra eta Ana Iparragirre billabonatarra izanen dira, lehena abesten eta bigarrena pianoa jotzen.

Bi zatitan banatuko dute ordubeteko saioa: lehenengoan obra italiarrak joko dituzte, besteen artean Mozarten egindako italiar kutxuko ariak. Besteen artean, Mozarten *Figaroren ezkontzako* arietako bat izango da entzungai.

Atsedean txiki bat egin ostean, bigarren atalari emango diote hasiera; oraingoan, Frantziako obrak, gaztelaniaz eta euskaraz, entzungo dira: Poulenc, Villar edota Pablo Sorozabal euskaldunaren obrak eskainiko dituzte, besteak beste.

Bi neska hauen ibilbidea berezia izan da: Ana Iparragirrek bere ikasketak Tolosan eta Donostiako kontserbatorioan egin zituen, eta irakasle izan zenean Nerea Barriola izan zuen piano ikasleetako bat. Barriolak Donostian burutzen ditu kantuko ikasketak, eta Iparragirrekin ezkontzetan abesten hasi zen, azken honek pianoan lagunduz. Zizurkildarra oso gaztea izan arren —20 urte ditu— badaramatza 4 edo 5 urte jendaurrean abesten. Hala ere, ez dute gaurko prestatu duten saioa inon ere eskaini oraindik.

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Herriko 3.000 argazki eta 550 toponimo CD interaktibo batean

‘Zizurkilgo ondarea eta baserriak’ CD interaktiboa aurkeztu du Joxin Azkue egileak Atxulondo kultur etxean



Zizurkilgo kaskoa, 1914an ateratako irudi batean. INDALEZIO OIANGUREN

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo ondarea eta baserriak CD interaktiboa aurkeztu zuten atzo arratsaldean Joxin Azkue egileak eta Marian Lazkano alkateak. 550 toponimo eta 3.000 argazki biltzen ditu

lan mardul honek. Atxulondo kultur etxean egin zuten CDaren aurkezpena, 40 lagun ingururen aurrean. Bertan, Joxin Azkue CDa nola erabili behar den eta toponimoak nola aurki daitezkeen azaldu zuen, adibide ugari emanaz.

JOKIN AZKUE ▶ ‘ZIZURKILGO ONDAREA ETA BASERRIAK’ LANAREN EGILEA

«Herriko memoria bisuala jasotzea da lan honen helburua»

Azpeitiarra jaiotzez, 26 urte daramatza Joxin Azkuek Zizurkil bizi, eta herri hori guzti bezala ezagutzen du. Bost urte inguru eman ditu Zizurkilgo txoko batetik bestera.

Nola sortu zen lan hau egiteko asmoa?

Herriko memoria bisuala jasotzea da lan honen helburua. Galtzen ari den memoria da. Obrak egiten dira, eta ahaztu egiten da aurretik zer itxura zuten. Herrikoek herria ez dute ezagutzen, eta lan honen herria erakutsi nahi da. Nire kabuz hasi nintzen argazkiak ateratzen baserriei. Komentatu nion Udalari, eta zerbait egiteko asmoa azaldu zuten. Tartean mapa toponimikoaren proiektua ere egin da, eta horrek asko lagundu dit lana burutzen.

Zizurkilek erakusteko asko duela azaldu duzu aurkezpenean.

Bi nukleo ditu herriak. Bat Elbarrrena da, eta bestea herria-

Zizurkilgo ia baserri, eraikin, toki eta txoko guztiak bilduta daude lan honetan. Esan bezala, herriko toponimo gehienetsuenak daude sartuta bertan, eta hauen argazkiak ikusteko aukera ematen du CDak. Horrela, toponimo bakoitzeko, demagun baserri bat, argazki zaharrak eta gaur egunekoak erakusten dira. «Lekuek eta baserriek izan duten bilakaera erakutsi nahi da horrekin», azaldu zuen Azkuek, eta deialdi bat egin zuen: «Argazkiak ikusterakoan, baten bat gogoratu da baduela berak argazki zahar bat baserri batena edo leku batena. Bada, argazki hori Udalera eramatera animatzen dut».

Aurkezpenean izandakoek CDaren egileari egindako lana eskertu zioten. Udalak CDaren kopiak egin ditu, eta herriko etxe guztietara bidaliko du ale bana.



I. GARCIA

ZIZURKIL ▶

Hilotza Orencio Morenoren delatuste dute familiakoek

Ertzaintzak eman behar duen konfirmazioaren zain daude ahaideak

I. GARCIA

«Uste dugu bera izan daitekeela, baina astelehena arte edo ez digute konfirmazio ofizialik emango», azaldu diote HITZARI Orencio Moreno zizurkildarraren senideek. Pasa den asteartean Amasan aurkitu zuten gorputza 77 urteko zizurkildarrarena izan daitekeela uste dute bere familiakoek, baina Ertzaintzak bere ikerketak amaitu ditzaiz zain daude.

Herrizaingo Saitetik familiarri azaldutako frogaren araber —arropa, gorputzari aurkitutako dokumentazioa...— Moreno dela ia ziurtzat jo daiteke, baina oraindik konfirmazio ofiziala falta da.

ANOETA ▶

Izeba Pilarren llobak-en maketa aurkezpena

Anoetako Izeba Pilarren llobak musika taldeak bere lehenengo maketa kaleratuko du Musikherria herri diskoetxearekin. Gaur, Anoetako Gaztetxean, 18:00etan maketaren aurkezpena egingo du taldeak. Aurkezpenean maketaren eta taldearen nondik norakoak azalduko dituzte, eta ondoren lanaren zazpi kantak joko dituzte. Bukatzeke, inguratzen diren guztien artean meriendatxo bat egingo dute.

ASTEASU ▶

18/98ko auzipetuei elkartasun-afaria

Afaria egingo dute gaur Aitzondo elkarteak, eskualdeko 18/98ko auzipetuei eta bereziki Nekane Txapartegi herriarri elkartasuna adierazteko. Izen-ematea 615 70 87 32 telefonoz egin daiteke edo elkartera bertara azalduta.



IBAÑEZ-GOZONA gozotegitik gure bezeroei jakinarazten diegu, Gorosabel 8an kokaturik dagoen eraikineko botatze lanak dirauen bitartean Gorosabel 4ean (IFAren ondoan) izango garela.

Denda honetan ere kafetegia, gozotegia eta okindegia egongo dira. Ordutegia 07:00etatik 20:30era jarraian izango da astelehenetik igandera, astelehen arratsaldean itxita egongo delarik.

Telefono bidezko eskaerak ohiko telefono zenbakietan egin daitezke: 943 65 05 39 eta 943 65 18 35

-Barkatu eragozpenak-

AHT ▶

NEREA URBIZU

Duela lau urte Andoaingo Belkoain mendian AHTren aurka egindako protesta ekintza batengatik auziperatu egin zituzten 6 lagun (tardean dira esualdekoak). Otsailean izan zuten lehendabiziko epaiketa, baina atzeratu egin zen, salaketa jarri zuena agertu ez zelako. Atzo goizean ziren deklaratzekoak berriro Tolosako auzitegian. Baina gauza bera gertatu zen: salataria ez zen agertu. Eta epaileak akusatuak absolbitzea erabaki zuen.

Hogeitabat lagun bildu ziren epaitegiaren aurrera, atzo, AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako protestan. Epaietan esandakoekin pozik agertu ziren. «Hemengo delitu bakarra AHT bera da», salatu zuten, era berean. Hitzari adierazitakoaren arabera, «hiru administrazioek dirua eta boterea lortu nahi dute, eta horretan ariko dira hori lortu arte, txikizioa egin arte».

AHT gelditzeko arrazoi bila

Gasteizko eta Madrilgo gobernuak AHTren obrak hasteko protokoloa sinatzea adostu dute. Bestalde, Nafarroako gobernuak ere «AHT eraiki eta Aralarretik barrena EAErekin lotu nahi du. Negozioari eta botereari eusteko duten bitarteko nagusia defendatzeko: Herri-Lanak», diote. Herritarren iri-

AHTren aurkakoak absolbitu ditu epaileak

Otsaileko epaietan gertatu bezala, atzo ere ez zen salataria agertu; kanpaina berria du martxan AHT Gelditu! Elkarlanak



AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak, atzo, protesta egiten, Tolosako epaitegiaren aurrean. N. URBIZU

tzia aintzat hartu gabe AHT proiektua inposatzeko «beste urrats bat» eman dutela diote Elkarlaneko kideek.

Kanpaina berri bat martxan jarri dute, non jende ezberdinen arrazoiak bilduko dituzten, «gizartearen desadostasuna anitza dela ikusiarazteko». Honela dio leloak: *AHT gelditzeko mila arrazoi daude: eman zeurea!* Bakoitzaren konpromisoa bilduz, gai honen in-

guruan «gizartean dagoen desadostasun zabala argi eta garbi» utzi nahi dute. «Abeltzantzari, nekazaritzari eta orokorrean gizarteari kalte egingo dion proiektu suntsitzaile honen arazoak ekarriko dituela ikusiarazi nahi diogu jendeari». Besteak beste, Euskal Herrian «proiektu suntsitzaile honi aurre egiteko energia alternatibo nahikorik badaudela» frogatu nahi dute.

Horretarako, paper bereziak daude betetzeko eta norberaren arazoia emateko. Bertan ere, konpromisoa eskatu egiten dute.

Hori guztia azaltzeko eta kanpainaren berri emateko Tolosako Kultur Etxean batzarra deitu dute, astelehenean, 20:00etan. Hurrengo asteetan ere informazioa emango dute aurrerago egingo dituzten deialdi eta ekitaldiei buruz.

ALEGIA ▶ BERTSOLARITZA

Abian jarriko dute gaur I. Bertso Paper Lehiaketa 16 urte arteko gazteentzat

Kultur Etxera bilduko dira bertsolari gazteak, arratsalde osoan koplak egin ahal izateko

N. URBIZU

Gaur, 16:30etik aurrera, elkar-tuko diraa 16 urte arteko gazte-txoak Alegiako I. Bertso Paper Lehiaketan parte hartzeko. Zazpi astoren gainean bertsozaleen taldeak antolatatu du lehiaketa, eta Udalaren, San Juan herri eskolaren eta Aralar institutuaren laguntza jaso du.

Kultur Etxean izango dute zita, eta bi mailatan banatuta egongo dira, lehena 12 urte artekoak eta bestea 12tik 16 urterainokoak. Bi gai proposatuak zaizkie, eta horietako bat aukeratu izango da. Nahi adina bertso edo koplak egin ahal

izango dituzte arratsalde osoan zehar.

Bestalde, helduek ere data bera izanen dute beren lanak aurkezteko azken egun moduan; hau da, gaur dute horretarako azken aukera.

Sariak

Guztiak izango dute saria, baina bereziki maila bakoitzeko bi onenak nabarmenduko dira. Apirilaren 7an horretarako espreski egingo duten emanaldian emango dituzte haien izenak.

Helduen sari banaketa bertso afari baten bueltan egingo

dute. Hasiera batean apirilaren 21ean egitekoak baziren ere, Alegian III. Garagardo Feriaren ez koinziditzearen, astebe- te atzeratu dute. Beraz, apirilaren 28an, ostiralez, egingo dute herriko bertso afaria eta, hortaz, paper lehiaketako sari banaketa.

Bertso Eskolen II. Eguna

Gipuzkoako Bertso Eskolen II. Eguna izango da igandean, baina Oiartzunen. Eta eskualdeko bertsolari gazteak ere parte hartuko dute bertan.

Felix Irazustabarrena alegiarra, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen lehendakaria, egitaraua aurkeztu du. Oiartzunen, 10:00etatik aurrera hasiko dira ekitaldiak. Jolasak daude antolatuta, eta gazteentzat bertso-antzerkia Udaleko areto nagusian. Besteentzat, bertso kalejira trikitilarietan eta Oihana Bartzeta eta Iker Zubeldia bertsolarien saioa.

Norberak eramango du bazkaria, eta elkarrekin bazkalduko dute guztiek pilotalekuan.



Txapelketaren iragarlea. HITZA

17:30ean amaitutzat emango dute jaialdia eta agurra egingo dute.

Orotara, 30 bertso eskola daude Gipuzkoan, eta bertan 350 ikasle. Hauetatik gehienek hartuko dute parte etziko topaketan.

Lagun berriak egiteko aukera polita dute gazteek, eta baita Bertso Eskolen aurtengo kamiseta lortzeko ere.

ALEGIA ▶

Saharako umeak hartzeko izen-ematea zabalik

7 eta 12 urte bitarteko umeak etorriko dira, eta jada Udalak baten gastuak hartu ditu

ERREDAKZIOA

Euskadiko Fronte Polisarioak *Oporrak bakean* programa martxan jarri nahi du Saharako haurrek Euskal Herrian oporrak igaro ditzaten.

Alegiako Udalak ume baten gastuak hartu ditu jada (hegazkina, antolakuntza eta laguntzaileen gastuak). Uztailla eta abuztuaren 7 eta 12 urte bitarteko saharako haur bat hartzeko familiaren bat prest dagoen jakiteko deialdi hau zabaldu dute. Interesa duenak Gizarte Zerbitzueta-ko bulegora deitu behar du, maiatzaren 19a baino lehen.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ MUSIKA

IÑIGO TERRADILLOS

Su Ta Gar taldeak bere disko berria kaleratu aurretik zuzeneko eskainiko du bihar Ibarako Gaztetxean. Aurkezpena baino lehen Euskal Herrian egiten duten kontzertu bakarra izango da. 23:00etan hasiko da emanaldia, eta «aurreko kontzertu batzuetan izan den jende kopuru handia dela eta, sarrekin argi ibiltzea» gomen datu dute Gaztetxeko kideek. Halaber, kontzertua hasi baino ordu bete lehenago jarriko dituzte salgai, 5 eurotan.

Jainko hilen uhartean diskoa «lanik orekatuena» bezala definitu dute taldekideek. Metala eta melodia bateratzen dituzten 11 abesti bilduko ditu, eta Aitor Gorosabel gitarra eta ahotsaren konposatzeko ahalmena agerian geratuko da berriz ere. Eibartarren musika ibilbidea ongi uler daitekeen diskoa izango da. Su Ta Gar taldearen zortzigarren lana izango da. Lehen diskoa, *Jaiotze basatia*, 1991. urtean kaleratu zuten, baina 1987. urterarte jo behar da Su Ta Gar-en sorrerara iristeko, urte horretan musika talde bat osatu asmoz elkartu baitziren Aitor Gorosabel Garai, Asier Osoro, Xabier Bastida eta Borxa Arrillaga.

Ibarako Gaztetxeko kontzertuarekin batera, oraingoz, Bilboko Santana 27 aretoan apirilaren 21ean, hurrengo egunean Gasteizko Azkenan, 28an Viña Rocken, 29an Gatikan, maiatzaren 6an Iruñean eta Donostiako Rock Star Aretoan 12an dituzte ziurtatuta. Euskal Herritik kanpo ere. Cuencan (Espainia) maiatzaren 19an eta hurrengo egunean Madrilan eskainiko dituzte zuzenekoak, besteak beste. Datozen hilabeteetan atsedenerako tarte gutxi izango du, beraz, Eibarko taldeak.

Su Ta Gar zuzenean, bihar Gaztetxean

Datorren astean lan berria aurkeztu aurretik Euskal Herrian eskainiko duten kontzertu bakarra izango da



Galder Arrillaga, Xabi Bastida, Asier Osoro eta Aitor Gorosabel, Su Ta Gar taldeko kideak. HITZA

ASIER OSORO ▶ GITARRA

«Irrikaz gaude kalera irten eta jendeak azken lana entzun dezan»

Datorren asteazkenean ikusiko du argia Su Ta Gar taldearen *Jainko hilen uhartean* izena emango duen azken diskoak. Taldeko gitarrak hitz egin digu lan berriaren inguruan.

Zer aurkituko dugu disko berrian?

Kolorea. Abestiak oso desberdinak dira elkarren artean, eta gogorrek, klasikoagoak edota baladak ere bilduko ditu disko-

ak. Baina, hori bai, Su Ta Gar da, betiko ildo mantenduko du, alegia, soinu hobea eta freskotasuna gehituz.

Gustura emaitzarekin?

Oso pozik gaude, bai abestekin, eta bai eta Juanma Bajo Ulloa zuzendariarekin egin ditugun bideoklipekin ere.

Hasierako irrika eta zirrara mantentzen al duzue sorreratik 18 urte igaro direnean?

Bai, gainera, disko honekin inoiz baino gehiago hartu dugu gure parte prozesu osoan. Irrikaz gaude kalera irten eta gure azken lana jendeak entzun dezan.

Nolako harrera espero duzue izango duela zuen disko berriak?

Jendeari pila bat gustatuko zaiolakoan gaude. Hala espero dugu, behintzat. ◀

IBARRA ▶

Uzturperen jaialdia gaur Belabietan

Gaur egingo dute Uzturpe ikastolako urteroko jaialdia. 20:00etan izango da Belabietan kiroldegian, eta aurten jorrratuko duten gaia kulturartekotasuna izango da. Bertan hartuko dute parte Haur Eskola, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko antzerki tallerreko ikasleek. Uzturpe ikastolak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu jaialdian parte hartzera eta, halaber, eskerrak eman nahi dizkie Tolosaldean bizi diren eta herrialde-kultura desberdinetakoak diren hainbat pertsoneri, eskaini dieten aholkularitza eta laguntzagatik: Naka Mohamed Bouda, Jaie-tu Walad, Leda Tavares... Kaiz loradendakoak, Ana Sanz eta Gregorio eta Elixabet Eizagire ere eskertu nahi izan ditu, besteren artean, Uzturpe ikastolak.

TOLOSA ▶

Astelehenean argindarra moztuko dute

Tolargik «euren bezeroei zerbitzu hobea ematearren», argindar moztetarako egingo dituzte instalazioetan hobe-kuntza eta mantenimendu lanak egiten ari direlako. Datorren astelehenean, apirilaren 3an, 08:15etik 12:15era moztuko dute argindarra, eta Korreo kaleko 29, 31, 33 eta 35 zenbakierei eragingo die. Egun horretan bertan, 08:15etik 09:15era, Korreo kaleko 44, 46 eta 50 zenbakietan ere argindarra moztuko du Tolargik.

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzue zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaia k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILUAPAINBEDIA
honekin

TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

LEITZA ▶

Hirigintzako gaiak nagusi izanen dituzte batzarrean

J. ASTIBIA

Hirigintzari dagozkion sei gai izanen dituzte gaur 21:00etan egitekoa duten udalbatzarrean eztabaidatzeko: hilerria handitzea, hiltze ingurua, Gas Natural enpresak egindako proposamena eta hainbat partikularrek eta baita Lazkano zinegotziak ere bultzatutako Hirigintza Planaren aldaketak.

Ogasuna ere hizpide izanen dute, «2006ko aurrekontuei egindako erreklamazioak» eta heldu den ikasturterako «Haur Eskolako tarifen onespena» mahai gainean.

Mendiko hainbat loteren beharpenak; «Amazabaleko guraso elkartearen proposamena»; Larrain plataformak aurkeztutako mozioa, tratatu eta erabakitzeaz gain, «irriti-komunikazio-sareen inguruko akordioa onestea» ere udalbatzarrek erabaki beharreko puntuen artean dituzte, guztira 15 puntu.

LEITZA ▶

'A tornallom' dokumentala proiektatuko dute Gaztetxean

J. ASTIBIA

La Punta (Valentzia) eskualdeko nekazariek beren lurrraren alde daramaten borroka ari da *A tornallom* dokumentala. Ikus-entzunezko lan horixe proiektatuko dute gaur, 22:30ean, Ateka Beltzako Gaztetxean.

PRESOAK ▶

Sakabanaketarekin bukatzea eskatuko dute beste behin ere

Haimar Altunak 11 egun daramatza gose greban «dagozkion eskubideak lortzeko»

ERREDAKZIOA

«Euskal Herriaren alde eraginez, euskal preso politikoak Euskal Herrira». Esaldi horrekin laburbildu du Etxerat-ek, azken ostirala izaki, lekuz leku gaurko deitu dituen elkarretaratzeek duten eskaera.

Euskal preso politikoaren senideen elkarteak, azken ostiral honetako deialdiak egitearekin batera, Euskal Herriak «gairi itxaropentsuak» bizi dituela adierazi duen arren, egoera berri hau beraiekin «zalantza guztiekin» hartzen dutela baieztatu dute: «Euskal gizarteak behin eta berriro eta milaka modutara» euskal presoaren Euskal Herriratzea eskatu duen arren, gaur egun «Espainiak eta Frantziak gure senideei ezarritako dieten sakabanaketa politika sakontzen» jarraitzen dutela ikusi dute eta baita jasan ere, «zigorra senide eta inguruko lagunei zabaltzen dituzte».

Egun, ia 700 euskal herritar 5 estatutako 83 kartzeletan preso daudela ekarri du gogorra Etxerat-ek, «%98,5 Euskal Herriko kanpoko espetxeetan» eta «horiek jasaten dituzten bizi baldintza gogorren adierazleak» ditu azken urteetan espetxeetan hil diren 22 lagunen heriotzak, «azkeneko biak hilabete honetan bertan», Anguloren eta Saizen erreferentzian.

Bizi baldintzak gogortzea

Estatuek «sakabanaketa mantentzeaz gain, isolamenduarekin, komunikazioen murrizketekin, zigorraren iraupenaren murrizketarako aukeren ezabaketarekin, zigorren handitzearekin... espetxean igaro behar duten denbora ahalik eta gehien luzatzea» bilatzen dutela baieztatu dute.

Hala, bi estatuetako gobernuak EPPKak «tratu duin eta begirunezkoa jasotzeko esku-



Aske geratzekoa bazen ere, ez zen Aizpurren berrikeri izan. HITZA

bidea, askatasun eskubidea eta kolektibo gisa, Euskal Herriari bizi eta gainerako eragileekin batera euskal gizartearen eztabaida eta erabakiguneetan parte hartzeko aukera eta askatasuna» izan ditzan exijituko diete.

«Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren konponbidean, aurrerapauso garrantzitsuak» emango lirarteke Etxerat-en ustez, euskal presoak beren herrira ekarriko balira.

Konponbiderako

Horixe dute gaurko elkarretaratzeetako leloa beste behin. Tolosaldean eta Leitzaldean, ohiko lekuetan eginak dituzte deialdiak: Alegian, Amezketan, Anoetan, Ibarren eta Tolosan, 19:30ean elkartuko dira; Aduan, Asteasun, Ikaztegiatan, Leitzan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilen, 20:00etan.

Lizartzan, gainera, ohar-tarazi dute Haimar Altuna bertako preso politikoa hilaren 20az geroztik gose greba egiten ari dela «dagozkion hainbat eskubide emanak izan dakizkion» aldarrikatzeko. Hori dela eta, lizartzarrei karteladan parte hartzeko deialdi berezia egin diete.

Herriko presoaren urtemugan, ekitaldiak Ibarren

Martxoaren urtemuga hilabetea dute Ibarren duela 4 urtez geroztik. Lau herritar Espainiako kartzeletan «preso sartu eta sakabanatuta dituzte»: Eider Ijurkok eta Ekaitz Aramendik hilaren 25ean egin zituzten lau urte; Maite Aranaldak 19an, urtebete; Jon Mindegiagak, berriz, urriaren eginen ditu lau urte, oraindik ere epailetaren zain egonik. Ibarren Herri Ekitaldien aste honetan zehar ekitaldiak egiten dihardu.

Hala, herenegun, Kultur Etxera bildu ziren 60 lagun inguruk kartzeletako bizi baldintzei buruz zuzeneko lekukotza

jaso zuten Etxerat-eko bi kide-oren eta Uzkudun preso politikoa ohiaren eskutik.

Gaur, berriz, 19:30ean, azken ostiraletako ohiko kontzentrazioan parte hartzeko deia egin dute, bertan Mindegiagaren urtebetetzerako argazkia ere aterako dutelarik.

Jarraian, herriko preso politikoei omenalditoxa eskainiko diete, 21:00etan Sendi Ekitan egitekoa duten kantu-afarrira joan aurretik —antolatzaileek adierazi dutenez, oraindik ere txartelak salgai badaude Zubiaurre eta Atari tabernetan—. ◀



Herenegungo hitzaldiko une bat, Kultur Etxean. AMAIA SAGASTI / GALTZAUNDI

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

hilberriak ▶

Patxi Zabaleta Arakama

Atzo hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Goian bego—

Bere arima zuzendaria; emaztea: Juliana Larrea; seme-alabak: Joxe eta Lourdes Arizmendi; anai-arrebak: Joxe Migel (+), Sabina eta Pako Alustiza, Joxe M³ (+); ezkon anai-arrebak: Prudencio (+) eta Maria Arrizabalaga, Manuela, Pakita eta Joxe Zurutuza (+), Juan eta Josefa Galarza, Bartolome (+), Jesusa eta Angel Bergara (+), Juan M³ (+) eta Josefa Inza; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitzetzela GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko 19:30EAN, SAN MARTIN parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea: Ugarteburu 6
oharra ▶ gorpua Beasaingo bellategian dago

ZEGAMA, 2006ko martxoaren 31



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 31, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

16

hotzera

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:

gaur: ez / bihar: ez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalatsez argizko, harpidetun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu-Leitza-Lizartza-Tolosa-Villabona-Zizurkil. *Konponbide garaia da* lelopean, bihar Bilbon egingo den manifestaziorako autobusak: Asteasukoa plazatik, 15:15ean (izen-ematea, tabernatan eta 615 70 87 32an). Leitzakoa 14:30ean, ohiko lekutik (izen-ematea, Torrean). Lizartzakoa 15:30ean, Joxe Mari aparkalekutik. Tolosakoa 15:30ean, Triangulotik. Villabonakoa 15:30ean, Olaederratik (izen-ematea Kixubi eta Amasa okindegietan eta Iratzarren, edo 943 69 16 10an). Zizurkilgoa 15:30ean, Joxe Arregi plazatik (izen-ematea Iriarte, Zentroa eta Aurreran). **Alegia.** I. Bertso Paper Lehiaketa. 16:30ean, Kultur Etxean. Zazpi Astoren gainean bertso eskolak antolatuta. **Tolosa.** Atsedena aisialdi taldeak apirilaren 18-19-20an Gaintzara joateko irteera antolatu du katekesiko haurrentzat. Joan nahi izanez gero 680 27 74 11ra deitu behar da. Izena emateko azken eguna, gaur. **Tolosa.** Bihar, Kirikiño aisialdi taldeak, urtero legez,



Gor gaua Bonberenean, gaur

TOLOSA ▶ Astebururo legez, musikak hartuko ditu berriz ere Bonbereneako txokoak gaur. Oraingo honetan, gainera, Gor disketxearen taldeak igoko dira taula gainera. Izan ere, Gor gaua izango da gaurkoa. Bi taldek joko dute zuzeneko: Leihotikan (argazkian) eta Ezinean. 22:30ean hasiko da emanaldia, eta goizeko ordu txikiak arte luzatuko da festa. HITZA

guraso formazio eguna egingo du, Hirukide Jesuitinatan. 10:00etatik 13:30era, otoitza, hitzaldia eta hamaiketakoa izango dira; *Hezkuntza afektibosexuala* saioa eskainiko du Eduardo Dovalde Muiños psikologo eta nerabeen hezkuntza afektibosexualan adituak. 14.00etan, bazkaria egingo dute; eta 16:00etan, kirol saioa.

MUSIKA

Tolosa. Atila y los Unos. 23:30ean, Frontonen.
Villabona. Nerea Barriola soprano zizurkildararen eta Ana Iparragirre pianojolea billabonatararen kontzertu lirikoa. 22:30ean, Gurean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi ebexa. 112.
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA


Txolarre irrati (107,5, 101,2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepeaso, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Zaharrek berri*, Hala Bedi irratia saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Arkako show* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Jose Ramon Lasa (Anoeta). Zorionak, aita, etbeko guztien partetik.



URTE ASKOAN
Xiker. Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat etbekoien partetik.



URTE ASKOAN
Jon Mattin Sukunza Telletxea (Leitza). Gaur 6 urte. Zorionak familia guztiaeren partetik.



URTE ASKOAN
Joseba Larreta 'Latu' (Amezketeta). Zorionak etbekoien partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker. Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea

konponbidegaraiada
EUSKAL HERRIA ERABAKIA • ADOS TANIENA

Bihar BILBOra!
MANIFESTAZIO NAZIONALA 7. Gurean AITA DUNDUSTA PLAZATIK

Udaberria zure esku

Bidiatzeko, irakurtzeko eta musikaz gozatzeko garaia da. Udaberri honetan, kultura eta aisialdi guztia zure esku **elkar** megadendan

elkar
elkar ezagutzen dugulako

www.elkar.com

BAIONA - BERGARA - BILBO - DONOSTIA - GASTEIZ - IRUN - IRIÑEA - TOLOSA